



OLENTZERO ETA JAIOTZEN LEHIAKETA 2019

Plaza Zaharrean, abenduaren 24ean, 12:00etan

ARAUTEGIA

- A – 10 urte arteko haurrak
- B – 11 urtetik 15 urtetarainoko haurrak
- C – 16 urtetik goitikoak

Olentzeroak eta Jaiotzak 11:30etarako egon beharko dira plazan. Euria eginez gero, plazako parte-hartzaileak udal-arkupetan kantatuko dute.

Lehiaketan aurkeztuko diren taldeak guttienez 6 pertsonen osatuak izanen dira eta partaide guztiek ohiturazko janzkera soinean eramanen dute.

Taldekilde batek hurrengo kategoriko adina baldin badu, automatikoki hurrengoan lehiatuko da.

Olentzero talde bakoitzak 2 kanta kantatuko ditu: bata, nahitaez **“OLENTZERO BURU HAUNDIA”** izanik eta bigarrena talde bakoitzak aukeraturikoa.

Derrigorrez Olentzeroa bizkar gainean izanik kantatu beharko da.

Epaimahaia, herriko bederatzi pertsonen osatua egonen da. Olentzeroa edo Jaiotza, kanta eta janzkera baloratuko dituzte. Epaimahaia kioskoan egonen da eta honen espazioa errespetatu beharko da beraien eginbeharra oztopatu gabe.

Lehiaketaren ondotik, bertan parte hartu nahi ez dutenentzat, jaialdiko atala izanen da. Atal honetan taldeek kantatu eta beraien Olentzeroa edo Jaiotza erakusteko aukera izanen dute, betiere lehiatu gabe. Atal honetan parte hartu nahi duenak, goizean, lehiaketa hasi aitzin, antolakuntzari jakinaraztea eskertuko da.

Ilunabarrean Olentzero irabazlea kalejiran ibiliko da karrikaz-karrika Herriko Musika Bandaren laguntzarekin.

Lehiaketa 12:00etan ospatuko da plazan. Parte-hartzaile guztiek akitu ondotik, irabazleen zerrenda jakinaraziko da, baina sariak ilunabarreko kalejiraren ondotik banatuko dira plazan. Saria jaso ahal izateko, Olentzero eta Jaiotza guztiak, Olentzero irabazlea izan ezik, kaleetatik jaso beharko dira. Kalejiran aterako den Olentzeroaren kasuan, saria emanen da beti ere kalejira behar bezala bukatzen bada, Olentzeroa osorik eta taldekideen janzkera lehiaketan aurkeztu bezala izanik.

Bertzalde, Olentzeroak xehetuz gero biltzeak suposatzen duen kostua Olentzero talde horrek ordaindu beharko du.

Lehiaketan parte hartzeko aldeztatik izena eman beharko da Lesakako Turismo Bulegoan (Beheko Plaza 5). Orduetgia; Abenduak 20, ortziralea, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ra eta abenduak 21, larunbata, 10:00etatik 12:00etara.



SARIAK

OLENTZERO

A-10 URTE ARTE

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

B-11TIK 15 URTETARA

Lehena	120 €
2.a	110 €
3.a	100 €
4.a	90 €
5.etik aitzinera	80 €

C-16 URTETIK GOITI

Lehena	600 €
2.a	400 €
3.a	300 €
4.a	200 €
5.atik aitzinera	150 €

JAIOTZAK

10 URTE ARTE

Lehena	80 €
2.a	70 €
3.a	60 €
4.a	50 €
5.a	40 €
6.etik aitzinera	30 €

11 URTETIK GOITI

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

Lesakan, 2019ko abenduaren 16an

